


AUGUSTIN  
ZUBIKARAI  
eta  
EUSKAL  
ANTZERTIA



ARGITARAPENAK

Argitaratze urtea: 1991  
Argitarapena: Ez dago salgai.  
Argitaratzailea: ANTZERTI

Legezko Gordailu: SS-1115/91



## NORTASUNA

**Eugenio AROZENA.-** Zubikarai'ri galdetu diogu: Zure izena zein da?

**Augustin ZUBIKARAI.-** Nire izena Augustin.

Gure zarrak Arana Goiri tar Sabin'en izendegia erabiltzen ekien.

Gogoratu kostatu egin zala Elizak aren izendegia onartzea. Gazteiz'ko Gotzain idazkien bat ere egon zala galerazten. Baiña azkenez, Erromatik egon zala baimenen bat. Eta orrela asi ziran parrokietan izenak onartzen, beti ere erdal izena alboan jarrita. Ala nirean esaten da Augustin o Agustin.

**E. A.-** Orretara Augusto txiki?

**A. Z.-** Ez, Augustin. Ez al da frantzesez ere Augustin, eta latinez Augustinus, eta gerkeraz Augustinos?

Izena beti da izen. Bataioan edo ta legepean ezarria.

**E. A.-** Aurrera. Ikasketak?

**A. Z.-** Amar urtekin Saturraran'en sartu nitzan urtean, Eguberri jaietan erre zen Andoain'go Seminario txikia eta gero angoak Saturraran'en jarraitu eben urtea.

Bostgarren urtean gaixotu nitzan eta etxetik ikasten ekin. Baiña Gasteiz'ko Gotzain zan on Mateo Mujika jauna ez zan etxetik ikasteko zale, eta beste urte bateko epea emon eustan sendatu ta Seminarioan jarraitzeko. Eta bitartean otzitu. Beraz lenengo Filoso-fiko urtea ikasten asi ta bertan amaitu.

**E. A.- Eta idazten asi, noiz?**

**A. Z.-** Garai aretan "Jaungoiko Zale" alkartea zan illeroko bat ar-gitaratzen ekiana eta "Ekin" asterokoa ataraten asteko ebillan. Arako asmotan tokia egin eusten Amorebieta'n, baiña osasunez makal ne-billen eta etxera biurtu bear. Etxetik asi nitzan "Euzkadi" egunkarian idazten, euskeraz eta erderaz ere bai, euskal gaietaz.

**E. A.- Noiz asi edo ausartu ziñan antzerki gaietan?**

**A. Z.-** Ba gendun batzokian antzerki talde bat. Obeto esanda, bat baiño geiago. Ba dakigu garai aretan parroketako Mariaren alabak galerazi egiten eutsela euretako bazkideei mutillekin dantza lotuan eta abar, bai eta antzerkietan mutillekin lan egitea ere. Luistarrak ez ziran ain estu. Origaitik mutillen talde bat gendun, neskena beste bat, eta "mixtoa" bestea, baiña neska batzuk sartzen ez zirala, esanda-koagaitik. Zuzendari aukeratu ninduen eta ortik zaletasuna.



*Bizkaiko Foru Aldundiaren omenaldia. 1986.*



*Gabon irudiak Ondarroa'n, "Seaska inguruan" antzerkiko ikuskizun bat.*

#### **E. A.- Ori antzeztuteko. Eta idazteko?**

A. Z.- Lenengo antzerkia mutil txikientzat, eskola mutillentzat idatzi neban. "Aberrijagaz bizi" deitzen zan. 1.933 urtean "Euzkadi" egunkarian agertu zan, zatika.

Mungia'n antzeztu zan lenengoz. Areik asi ziran guri zirika. Atsegiñez ikusi zan lan ori, eta onek berotu beste zerbait idazteko.

Ondoren "Illobaren indarra" deiturakoa idatzi neban. Au ere "Euzkadi" egunkarian agertu zan zatika, 1.934 urtean. Ondarroa'n emon gendun lenengo aldiz.

Urrengo urtean, 1.935'n , eta au ere "Euzkadi" egunkarian atalka agertu, "Itxas Lapurrak" deiturakoa, XVII garren gizaldiko itxas lapurren eginkizunetan iruditu eta gaitua.

Esana lez, iru oneik "Lauaxeta" zanak "Euskadi" egunkarian erabiltzen eban Euskal orrian agertu ziran eta "Lauaxeta" zanak ardurtzen eta adoretzen nindun antzerkiak idazten jarraitzera.

#### **E. A.- Eta ondoren?**

A. Z.- Gure gerra aurretik oraindik beste antzerki bat idazteko aukera euki neban.

Bilbao 'ko Euzko Gaztediak eratuta, euskal antzerki leiaketa bat iragarri zan 1.935 urtean.



*"Jaunaren bidetan*

Leiaketa onetarako idatzi ta bialdu neban "Itxas ertzeko itsu mutilla" deiturakoa.

Gure guda sortu zan eta an geratuko zan nunbaiten Euzko Gaztedi aretako paperen artean.

**E. A.- Eta gero porrot?**

**A. Z,-** Ez. Ba dakizu gerratean "Eguna" euskal egunkaria gendula gure kontura.

Guda amaitzean, Laredo'n makurtu, eta Langille batalloetan gebiltzala, trukatu (kanjeatu) egin ginduezan, emengo bederatziz kazetari beste aldeko ainbesteen ordeiz. Eta orra gu lenengo Iparraldean, gero Landésetan, gero Lannemezan eta Tarbes eta abarretan, Alemaniarrakan sartzean etxeko garrez asi ta... barrero lengo bideak baiño okerrago Figeras'eko penalean, Gibraltar aurreko mendietan eta abar.

**E. A.- Oraingotan antzerkia egin edo idatzi barik, dramako pertsonai, ez?**

A. Z.- Alaxe da. Alaz eta bein, etxean nengoala, 1.949 urtean, Miarriz 'en Euskal Lore jokoak iragarri ziran. Antzerki lana ere tartean sartzen zan. Lantxo bat gertu eta bialdu neban. Ekintza bakarreko saillera. Eta urte aretako Gabonillean, irratizentzun ebala-ta, adiskide batekjakin erazi eustan, irabazle gertatu nitzala.

Geroago lortu neban Epai-maiaren agirian au esaten zan:

"Antzerki edo teatroa". Zortzi lan igarri dituzte. Lehen saria: bi zati edo gehiagokoak. Zorigaitzez ez da izan lanik garait sarien emaleen chedeak osoki bethe dituztenik milaren prima irabazteko gizan.

Halere behatuz lanen balioari, 10.000 liberaren prima bat eman diote Larzabal jaun aphezari, ("Urchilotar horiek"); eta bigarren saria (5.000) Jean Lousteau-ri ("Amaren heriotzea") eta J. Uarrain jaunari ("Amayur").

Bigarren saila: ager-aldi bakarrekoa.

Lehen saria ( 10.000) libera Zubikarai'ek "Itsasora" eginik. Bigarren saria erdizka "Izariko zapeta" egin (J.Minaberi eta A. Charriton) eta "Maitechoren ezkontza"Yen egileak (Mayi Elissagaray)

Orra antzerki gaietan eta euskal lanetan irabazitako lenengo saria.

**E. A.- Urte areitan idazteko gogorik bai?**

A. Z.- Idazteko amorratzen, baiña norako? Beti gendun zentzura gogor eta itsu baten pixua buru gairnean.

Urte batzuk geroago Donosti'ko "Agora" asi zan leiaketa batzuk eratzen.

Orrek adoretu genduzan.

' Gogoratzen naiz Eguberri gaietazko antzerkia izan zala lenengotako gaia.

Bigarren saria izabazi neban "Seaska inguruan" antzerkiagaz.

Egon zan leiaketa onetan alako zirikada bat. Idazletako batek, "Arrasaten ditu sustriak" lemapean, bialdu eban lan bat. Ez eban

guzurrikesaten. Arrasate'ko eskribadu izan zan Barrutia'ren lan bat ia osoan bialdu eban. Epai maikoak irakurri barik euken "Euskalzale" astekarian urte asko lenago agertu zan lan bat. Eta areri emon lenen saria. Gero lana ezagutzean, Aresti izan zan auzia argitu ebana, epaiketa salatuz, baiña bertan bera itzi nai izan zan anka sartzea edo despistea. Irugarren saria J. A. Arkotxa'k lortu eban "Gabon Gabontzeta" lanakin.


#### **E. A.- Iñoiz antzeztu zenduen lan ori?**

A. Z.- Sari areri esker, asi nitzan talde bat osotzen. Konturatu nitzan antzerkia lan egokia zala ordurarte urte askotan irakurri ere egiten ez zan euskeran, jendea zaletzeko aitzakitatzat.

Gaztetxo eta zar, antzezlari eta abeslari, 60-70 lagun inguru batzen asi giñan. Lana "Egan "en argitaratu zan 1.956 urtean. Eta Ondarroa'n antzeztu gendun lenengoz 1.957 urtean, agintariak nekez zurituta.

Eibar, Elgoibar, Lekeitio eta Markiña'n emon genduzan jaiak eta Euskaltzaindiak urtero eratzen eban jaiian Bilbao'ra be eroan genduezan. Baiñaordukoeragozpenaketatrabakjakiteko, esan bearreko da Bilbao'rajoan beargiñan besperan, sindikatu barikgengozala eta ezin joan giñala deitu euskuela eta nekez lortu gendula traba ori gaindutea.

Orrek, atzeratu egin barik, beste antzerki bat gertutera bultzatu nindun. "Jaunaren Bidetan".



*"Tramana eta Brix"*



# TEATRO VICTORIA EUGENIA

ESTAMPAS  
DE LA  
PASION

MARZO 31  
VIERNES SANTO  
a las 11  
de Ja mañana  
y 7,30 de la tarde

## " Jaunaren Bideetan "



de Agustin Zubicaray  
Música de José M. Altuna

POR EL GRUPO  
O. A. R. GUI.  
DE  
AZPEITIA

PATROCINADO POR C.A.T. DE SAN SEBASTIAN

Antzerki au Ondarroan antzeztu gendun 1.958 urteko Aste Santuan.

Antzerki au Gazteiz'en ere antzeztu gendun Raimundo Olabide'ren omenaldirako gertu ziran jaietan. Ara ere Euskaltzaindiaren eskutik joan giñan. Eta Markiña, Lekeitio, Eibar, Urretxu, Arrasate, Deba, Soraluze eta Ermua'n eta beste nunbaiten be emon gendun. Nai eta gaia Asta Santurako egokia izan, alaz ere atsegiñez artu ginduezan joan giñan tokietan. Azpeitiarrak be asi ziran zatien bat zerbait aldatuta, Altuna'ren musikagaz antzeztuten.

Ezin ukatu giroa sortu gendunik.

Indartzen asi giñan gure "Kresala" taldea.

**E. A.- "Kresaletan" izenarekin ez al zenden lanen bat agertu?**

**A. Z.-** Gure Txomin Agirre idazle gorenak, merezi eban gure oroi-pen eta omenaldiren bat. Eta orrelako zerbaitetan pentsatuta, ausartu nitzan ordurarteko eleiz-gaietatik urten eta gure bizitzako oituretazko lanen bat egitera

Orrela "Kresala"ko Kitolis en kontakizuna, Tramana eta Brix sardin saltzailleen asarre eta ateraldiak eta beste pertsonaien bat sartuta, biribildu neban zerbait.



Asieran "Kortzeleko mamuen" mitoloji gaietazko irudi bat sartu neban eta amaitzeko ain zuzen Biarritz'en saritutako lana.

Musikalati jator bat eskiñi jakun musikaz apaintzera: Gregorio Solabarrieta, Miranda de Ebro'ko musika taldeko zuzendaria, eta ondarrutar batzuen senitarteko zana.

1.961 urtean asi giñan "Kresaletan " emoten Ondarroa'n. Eta lan au "Kresala" taldearen ekintza jator eta txalo irabazle biurtu zan urte batzutan.

Euskalerrri osoan ibili giñan, bertan lan egiten eben zuzendari, antzezlari, abeslari, musikari eta laguntzailleen gogo eta garrez.

Ondarroa'n bertan lenengo urtean bost egun jarraikoetan emon bear izan gendun, geroago beste urtetan be emon bearra eukiaz. Bilbao, Dbnosti, Eibar, Ordizi, Hondarribi, Zumaia, Azpeiti, Urretxu, Ernani, Zarautz, Mutriku, Deba, Elgoibar, Arrasate, Bergara, Pasai, Oñati,... Eta Bizkaian, Bizkai euskaidunean antzokirik ba egoan, an

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN  TEATRO VICTORIA EUGENIA

1962'go EPAILAREN 4'an  
**IGANDEA**  
GOIZEKO 11'30'tan ETA  
ARRATSALDEKO 3'30'tan

Erakar-Turismo'ko  
Zaigo'aren babespean.

Arantzale - bizitzari dagozkion  
irudiak.

4 DE MARZO DE 1962  
**DOMINGO**  
A LAS 11'30 DE LA MAÑANA Y  
A LAS 3'30 DE LA TARDE

Patrocinado por el Centro de  
Atracción y Turismo.

Representación de la obra teatral de  
estampas de la vida marinera, titulada:

# KRESALETAN

(ENTRE SALITRE)

DOMINGO AGIRÉ Apaiz jaunaren  
**KRESALA**  
izeneko nobelatik artuak.

AGUSTIN ZUBIKARAI jaunak,  
antzerkirako tajutua.

SOLABARRIETA'r,  
GREGORIO jaunaren  
eresia.



ONDAROA'KO  
ANTZERKI-TALDEAK  
AGERARAZIA

Basada en la novela **Kresala**  
del Presbitero  
D. DOMINGO DE AGUIRRE.

Adaptación escénica de  
D. AGUSTIN DE ZUBIKARAI.

Musica de  
D. GREGORIO  
DE SOLABARRIETA



POR EL  
CUADRO DE ARTE  
DE ONDARROA




agertzen giñan, Bermeo, Lekeitio, Ermua, Durango, Galdakao, Markiña eta abarretan.

1.961, 1.962, 1.964 eta 1.965 urtetan, 60-80 lagun erriz erri geratu barik erabiltzeko, eta askotan berogarri txikien baten truke, ezin ukatu partaideen euskal gogo bizia bear zanik.

AUGUSTIN ZUBIKARAI

# BIZI GARRATZA" MENDO ZAHARRAK"

augustin zubikarai



iralcur sail

**E. A.- Eta gero beste bat, a ere erri askotan erabilia, "Mariñelak", zer?**

A. Z.- 1.964 urtean Txomin Agirre'ren eun urtegarrena gertatzen zan ezkeru, bear lez ospatzeko asmoa artu gendun.

Ba genkian Txomin Agirre'k gure zarren artean lotsa eta itzal zintzoa euki zitula. Bere denboran karlatar familiko izan zala. Eta orrek be, bizi giñan giroan, alako "konfiantza" emoten eutsan ospakizunari.

Origaitik ospakizun ori, egingarritzat edo baimengarritzat artu zan.

Lore Jokoak eratu ziran.

Giroari men eginda, lan batzuk erderaz ere sartu ziran. Geienak euskeraz. Kontakizun, ipuin, olerki, entsaio eta abar.

Nik igarri neban jaiak eratzen ebillan Udaleko batzordeak, ez eukala bizitasun edo gogo andirik Udal berberaren saria euskal gai bateráko emoteko.

Orduan egiña neukan antzerki lan bat, "Kresaletan" en antzera koro ta guzti egiteko erakoa, eta Udaletzeko batzordeari eskini neutsan, besterik ezean Udalak oraindik iragarteko eukan saria, lan orrentzat musika jartzeko izan eikela-ta.

Onela zuritu ziran, eta sari ori iragarri ere bai besteen artean.

Musikalaribatzukgonbidatuziran, baiñadenboralaburregiemoten zala lana egiteko. Norbait eskiñi jatan, berak denbora luzeago baten pozik egingo ebala esanez.

Epe barruan, musikolari batek bakarrik agertu eban bere lana: Jose Mari Altuna azpeitiarrak.

Sariak agertzeko eguna eldu zanean, arrituta geratu giñan: "Mariñelak" eta bere musikarik aitatu ere ez.

Zer gertatu zan?

Ziurretik Batzordeak ez eban lan ori iñora bialdu. Uts, "desierto" iragarri eta kitto.

Taldekuakez giñan geldi egon. Lortu gendun "partitura". Ikasten asi giñan eta igarri gendun atsegin jausiko zala.

Alaxe gertatu ere.

Aurreko urteetan "Kresaletan" antzeztu gendun tokietan eta geia-goetan antzeztu gendun, edonun be txalo ugari irábaziaz.

1.9.68 urtean asi giñan Ondarroa'n antzeztuten, Sei egunetan utsik barik emon bear izan gendun erriko zaletasuna asetzeko.

Orrek zerbait adierazten dau.

**E. A.- Bitarte utsik ez?**

A. Z.- Bitartean, 1.965'n, "Zurrukutun" deiturako jolas antzerki bat antzeztu gendun.

Mañari'n ospatu zitan "Kirikiño'Yen omenaldietan, 1.966 urtean, "Atxuri'ko Millagrua" gertu neban, Kirikiño berberaren irakurgai batetik atarata eta "Kresala" taldekoak joan giñan antzeztutera.

Giro txar, eta maltzur baten antzeztu ere. "Kirikiño" idazlea baiño eusko gudarietako "Kirikiño" batalloia geiago euken agintariak euren irudimenean.


Alaz eta guk jaia bete gendun.

Jai oneri buruz "Egan" aldizkarian au agertu zan 1.966'ko Ekainillako zenbakian"



*"Mariñelak"*

# MARIÑELAK



ONDARRUKO

## "KRESALA"

Taldeak eginda



"Ondarruko teatrolariak eman zizkiguten, xarmanki jolastuak (jokalari aipagarri dira, astiro eta ozenki mintzatzen dakiten gazteak diralako: arrigarri) Kirikiñoren bi ipuin urragarri."

E. A.- Eta zergaitik mututu?

A. Z.- Batetik gaitz zan ainbeste laguneko taldeagaz ia igandero batera ta bestera ibiltzea.

Giro barria sortzen asi zan, baita, gure artean: Folklore geiegi gerabilgula, eta bestelako zerbait bear zala ta asi giñan banakatzen. Giartsuago jokatu bearra egoala, erriari gogai eta buruauste barriak eroanaz ...

Ortik etorri zan talde banaketa.

Egin gendun beste lanen bat, oraingoan arrantzalean Canarias aldera joaten asiak ziran bizibidea eta abar gaitzat artuta, Xabier Lete'ren lan bat ere tartean zala.

**E. A.- Baiña zu-zeuk antzerkiak egiten jarraitu zendun?**

A. Z.- Bai, baiña ... etxean gordeteko.

Banakaren bat antzeztu izan da. Errenderiarak "Iru alaba" antzeztu eben; elgoibartarrak "Urruzunorenak" eta abar, baiña geienak, nai eta sarituak izan, or dagoz ixilik.

Ori da antzerkilariaren zoritxarra.

Argitaratzen diranak, iñoiz batzuk aldizkarietan sartzea lortuta ere, ez dirala jendearengana eltzeko eran agertzen, eta antzerkiak, antzokitik atara ezker, bere izatea galdu egiten dau.

**E. A.- Ez al ziñan ibili Escudero ren "Gernika"ri zerbait egiten?**

A. Z.- "Gernika" orretan ni baiño geiago ibili zana Iturria frantziskotarra, Karmel Iturria izan zan.

Nirea "lerketa" eguneko zatia da, eta Gernika Bizkaiko erri izanik, angoo asarre, deadar, intziri, negar eta madarikatzeak bizkaieraz jatorrago izango ziralako, gernikarrak oituraz egiten daben antzera.

**E. A.- Zenbat sari irabazi dituzu danetara?**

A. Z.- Asierakoa, esandako "Ixsora" lanakin 1.949 urtean.

Gero "Seaska Inguruan" ekin bigarren saria Donostian.

Urrengo Bilbao'n, Toribio Alzaga Saria 1.963 urtean, "Iru Alaba" lanagaz.

1.967 urtean "Gizon on eta andre erre" gaz, 1.967 urteko Toribio Alzaga.

Urte berean Donosti'n, Gipuzkoa sarietan, aipamen berezia "Bizi garratza" deituráko lanagaz.

1.968 urtean, Donostian, Gipuzkoa saria, "Lurrunpean" lanagaz.

1.969 urtean, sari bardiña Donostian, "Errekonduan ... txabolei tiroka" gaz.

1.969 urtean Bilbon, Toribio Alzaga saria, "Mendu zarrak" egaz.

1.983 urtean, Markiñako Euskal Lore Jokoetako saria, "Mendi eta



Itxaso" lanagaz.

"Don Peru Maisua" gaz, Santurtzi'ko udal saria.

1.986 urtean, Bizkai Aldundiko saria, "Artea'ko itsua" gaz.

**E. A.- Gogoratzen danetara zenbat lan idazi dozuzan?**

**A. Z.-** Berrogei inguru.

Uste dot argitaratzen dodan erreskadan bat edo beste falta dirala.

Baiña kopuru orren barruan nabil.

"**Aberriagaz bizi**" Umeentzat. "Euzkadi"n argitaratua

"**Illobearen indarra**" Andientzat."Euzkadi"n argitaratua

"**Itxas lapurrak**". Andientzat."Euzkadi"n argitaratua

"**Itxas ertxeko itsu mutilla**"

"**Itxasora**" Biarritzen saritua 1949

"**Umeetako kezak**" (Umentzako)

"**Aingira kumak**" (Umentzako)

"**Ikas-Mikas**" (Umentzako)

"**Seaska inguruan**" (Gabonetako irudiak). 1956'an Donostia saritua. ("EgaiV"en argitaratua)

"**Jaunaren Bideetan**" ("Egan"en argitaratua)

"**Iru Alaba**". 1963ko Toribio Alzaga saria "Euskera"n agertua.

"**Kresaletan**". Greorio Solabarrieta'ren musikaz

"**Mariñelak**". Jose Mari Altunaren musikaz.

"**Gizon on eta andre erre**". 1967. Toribio Alzaga saria

"**Bizi garratza**" 1967. "Gipuzkoa" sarietan aipamena

"**Lurrunpeta**" 1968. "Gipuzkoa" saria. "Egan"en argitaratua

"**Errekonduan**" 1969. Toribio Alzaga saria (Au eta "**Bizi Garratza**"

"Irakur Sai liburu sortan argitaratu ziran biak liburu baten")

"**Loialako Semia**"

"**Niz naiz Kapitan pilotu**"

"**H. Opokoa H**"

"**Kirritirrika**"

"**Gernika Aritz aurrean**"

"**Zurrukutun**"

"**Zimur Zimelak**"

"**Saliña Saliña**"

"**Atako bandan**"

Orrez gaiñera antzerkirako egokitu: "**Atxuriko Milagrua**".

Kirikiño'rena. Kirikiño'ren omen egunak "**Urruzuno'ren umorez**"

Urruzonoren omenaldiko

"**Mendi eta Itxaso**". 1983'ko Markiña'ko Lore Jokoetan lenen saria

**Artea'ko itsua**. 1986'ko Bizkai Aldurjeko Saria

"**Zuri ta gorri**"

"**Orbel eta Orri**"

**E. A.- Kritikari buruz ba dezu zer esanik?**

**A. Z.-** Kritikari buruz nik esan neikena au da:

Euskaldunok jazarpen baten mendeko agertu giñala denboraldi baten eta orrelakoetan bai ikusle aldetik eta bai kritikariaren aldetik, alako erruki bigunez begiratzeko arriskua euki izan dogula.

Nire aldetik beti izan naz orren aurkako.

Gu "Seaska inguruan" antzeztuten asi giñanean, lenengotik igar-ten zan ori. Erria euskeraz zerbait ikusteko egarri ebillan. Egia esateko, gu be alegindu giñan gauzak itxuraz egitera.

Eta orko arrera, geroko lanen bizigarri izan zan.

**E. A.- Eta "Jaunaren bidetan" eri buruzkoak?**

**A. Z.-** Olabide'ren omenaldian Gasteiz'en egin gendun agerral-diak izparkari ugari batu zitun antzokian. Eta ara bost egunkarietako esanak; erderatik euskeratuak:

"Jaunaren Bidetan", Jesus'en Nekaldiko irudien agerkizuna, be-netan zoragarria izan zan. Lan sakon eta ederra eta erti giro bizian agertua".

*El Pensamiento Alavés.*

"Ondarroa talde onekin alkartu da, jakituri, eskintza oso eta benetako garrez ekiteko eta gurenda lortu dau."

*La Gaceta del Norte.*

"Kazetari au antzokitik benetan txundituta urten zan, eta kontu-ratu zan beste ainbeste gertu jakoela ikusgarri zoragarri au ikustera batu ziranei.

Dana egoan egoki: antzokí, irudi, jantzi, antzezlarien lan, koru eta abar. "Jaunaren Bidetan" Zubikarai'ren lanak merezi dau errialde osoan ezagutzea."

*La Voz de España.*

"Ondarrutár euskal antzerti taldearen buruzkoa azkenerako itxi dogu,, merezi duan aiña egin gura dogulako. Bere lankide askotan, eta ezpai barik osotasunean, Euskalerrian sail onetan ezagutzen dan onena da. Arrigarri da Ondarroa lakó erri txiki baten zelan batu al izan diran ainbeste ertilari."

*El Pensamiento Navarro.*

"Benetan,oi-ezlako garaitza lortu eben bere egiturako zintzotasu-nagaitik ao batez goratzea lortuaz. Ikusgarritasun andia eta bat goitik berako arradaz itxi al izateko aiñako agerpen indartsua daiika.

*ElCorreo Español - El Pueblo Vasco.*

"Kresaletan" emoten asi giñanean, beste ainbeste edo geiago esaten asi ziran egunkariak. Jakiña gaia, kaleko gai lez, errikoiago edo oiturekaz lotuago.

Ara batzuk:

"Igandean emon zan "Kresaletan" Arriaga antzokian eta bete-beteko gurenda lortu.

Antzezkizun guren bat emon eben danak, eta orrek asko esan nai dau taldearentzat. Idazle ta musikalari, A. Zubikarai eta G. Solabarieta eta antzezlari, koru, orkesta eta abarrek ainbat alditan urten bear izan eben ikusleen txaloak artzera.

Lan bakana, garaitza asko lortzeko gaitua."

*"El Correo Español - El Pueblo Vasco."*

"Antzokiak, betien bete, antzerki ospakizunik andienetako itxurak artu eta jantzi zitun."

*La Voz de Castilla, Burgos. 1.961-11-1.*

"Ondarruko taldeak, erakunde^jatorra benetan, bere irurogei taldekideentzako merezitako ospeak lortu zitun."

*La Voz de España 6-3-62.*

"Bete-beteko txalo ta zorionak artu zituen "Kresaletan" antzerki-zunean ain jator, gogotsu eta ertilati jokatu eben 60 lagunek, Victoria Eugenia antzokia bete arte batu zan jendetzaren aldetik. Euskal giro zindo, jator eta samur baten bizi eragiñaz, Donostiarrak euren atsegin, maitasun eta arrigarritasuna erakutsi eutsen.

*"El Diario Vasco" 6-3-62*

**E. A.- Eta "Mariñelak" zela artu zun jendeak?**

**A. Z.-** "Erri baten berotasunez egindako eres-antzerkia"

*Aranzazu, 1.972'ko Azaroan.*

"Dagoeneko taldekoak Elbar, Elgoibar, Tolosa eta beste erritan txalotu dituzte eta entzun dudanez, aurtengo udaran Donosti'ko euskal jaietan agertzekotan omen ditugu. Askotan dirua galdurik, ez baldin ba'da musu truke, baiñan beti biotz-irabazle.

Zorionak beraz ondarrutar bizkorrei. Topa! Eta Jose Mari Altuna musikariari aintza eta goresmena goi-arnasez gure eresia lantzen jarrai dezan. Azkenik Augustin Zubikarai "Kresala" taldeko zuzendari dan nere adiskide zarrari besarkada estu bat. Losintxarik gabe esan diteke berau dugula gaur Euskal Teatroan dabillan gizonik omengarriena."

*Agur, 10-VI- 72. Antonio M- Labayen.*

"Oraintsu- orain Ondarroako Kresala taldeak antzeztuta. Mutrikuko Ederrena aretoan antzerki-jai aldi ikusgarribat izan degu. "Mariftelak" eres antzerki pare-gabea. Arrantzale giroan ikusi degun antzerkirik atsegingarrienetakoa."

*1.973-VIII-5 Ziriako Andonegi*

"Mariñelak" zirtada eragin dauan euskal eres-antzerkia."

*Hierro, 26-1 - 68. J.A. Mancisidor*

"Bete-beteko garaitza Augustin Zubikaraik idazle lez eta J.. Altunak musika egilleak eta lenengoz antzeztu dauan "Kresala" taldekoak "Mariñelak" lanagaz lortu dabena.

*La Gaceta del Norte, 24 -I - 68.*

Ikusi daitekenez kritika aldetik ez giñan txarto ibili.

Ibili giñan tokietatik ere artu genduzan karta batzuk. Ara emen Donosti'ko Centro de Atracción y Turismotik "Kresaletan" antzestu ondoren artu gendun idazkia:

7 de Marzodel.962

Señor Don Agustin Zubicaray  
Director del Grupo de Arte de ONDARROA

Muy distinguido Señor mío:

En nombre del Centro de Atracción y Turismo de San Sebastián, quiero expresar a Vd. la más cordial felicitación por la magnífica presentación de la obra KRESALETAN, en el Teatro Victoria Eugenia, de esta capital, el pasado domingo día 4 de los ctes.

Le ruego haga extensiva esta felicitación a todos los componentes del Grupo, y a cuantos han colaborado en la preparación y desarrollo de tan espléndida obra.

No dudo, que si ese Cuadro de Arte prepara nuevas realizaciones, pondremos contar con él para que en San Sebastian, pueda volverse a aplaudirle.

Con este motivo me es muy grato aprovechar esta ocasión para saludarle muy atentamente

*Gabriel Amezttoy*

*Tte. de Alcalde Presidente de la Comisión Permanente del C.A. T.*

**E. A.- Ba dakit Xabier Lete'k ere lore, aipamen eta losintzaz bete zinduzala, "Bizi Garratza" eta "Mendu zaharrak" liburuari egindako itz-aurrean.**

**A. Z.-** Nik uste dot askotan aurrera jarraitu eragitearren ere esateñ dirala edo loratzen dirala esaera batzuk.

**E.A.- Lorak eta ez zimelak. Begira Augustin:** "gauza hauek gaur eskuetan duzuten liburuaren harira datoz. Izan ere, Augustin Zubikarai aipaturikako gerla osteko giroan bere teatro lana osotu duen idazlea da. Eztut honekin garai hartara bakarrik lotu nahi. Gaur

ere idazten du, eta nere ustez iñoiz baiño hobeto; bainan, hala ta guztiz, bere pentsakeraz, izakeraz, edadez eta idatzietako giro berezi horrek adierazten digunez, garai hartako egile klasikoa da, eta behar bada, teatro saillean langileena ta onena."

**E.A.- Eta ez ori bakarrik. Aurrerago baten dio:** "Zubikaraik ba du halako erraztasun berezi bat bere obren pertsonaiak eszenan ezartzeko, definitzeko eta mugitzeko. Era klasikoak planteatzen du bakoitzaren zer-esana eta zer-ikusia, bainan erraz erabiltzen du gaia eta pultsu sendoarekin eramaten ditu aurrera, berakezarri nahi dien papera ondo beteaz. Dialogoak, elkarhizketak, guztiz trebeak eta pizkorrak dira; abilidade haundiarekin mintza erazten ditu bere pertsonaiak, era herrikoeietan gaiñera, herrikoikerietan erori gabe; naiz eta batzuetan, noizik behin, dialogoaren bizkortasun eta bizitasun horrek berak hizkuntzaren aldetikako "barrokotasun" pittin bat enbazogarria sortzen badu ere."

Eta azkenez, Lete'k dio, BIZI GARRATZA, MENDU ZAHARRAK baino hobeago iruditu zaiola. **Zuretzat ere bardin ahal da?**

**A.Z.-** Nik kritikoen irizpidea onartzen dakit, eta ala diñonean, ala izango dá.

ANTOLATZAILEAK:



• EVSKO JAVLARITZA • KULTURA SAILA •

Tel.: (943) 47 15 01

Apdo. 854 • 20080 DONOSTIA



Euskadiko  
IX. Euskal  
Antzerki  
Topaketak  
Azpeitian



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA**

